

**Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren,
Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren Euskarabidea -
Euskararen Nafar Institutuaren, eta Euskararen Erakunde Publikoaren
arteko euskararen sustapenari buruzko lankidetzaz hitzarmena**

2020ko ERANSKINA

Bildurik

Bingen Zupiria Gorostidi, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuaren Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,

Ana Olo Hualde, Nafarroako Foru Komunitateko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria,

Beñat Arrabit, Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria,

Honako hau,

Adierazten dute

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak, 2017ko ekainaren 20ko bileran, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskarari buruzko hizkuntza-politikako

gai jakin batzuetan mugaz gaindiko lankidetza garatzeko hitzarmena izenpetzea onartu zuen.

Era berean, Nafarroako Gobernuak, 2017ko ekainaren 21ean, hitzarmen hori izenpetzea onartu zuen.

Baita Euskararen Erakunde Publikoaren Biltzar Nagusiak, 2017ko ekainaren 1eko bileran, hitzarmen hori izenpetzea onartu zuen.

Horrela, 2017ko uztailaren 3an, Iruñian hiru erakundeen arteko lankidetza-hitzarmena sinatu zen.

2017-2021 epealdirako indarraldia duen hitzarmen-marko horren xedea da Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Nafarroako Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren, eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskarari buruzko hizkuntza-politikako gai jakin batzuetan mugaz gaindiko lankidetza garatzearen aldeko borondatea berrestea eta erakunde mailako harreman iraunkorrak egonkortzea eta garatzen jarraitzea, herri-erakunde bakoitzaren erabaki-autonomia eta funtzionamendu-arauak errespetatuz.

Elkarlana zehazteko prozedurari dagokionez, hitzarmen-markoaren laugarren atalean adierazten da urtero jarduera zehatzen azterketa eta jarduera planaren proposamena egitea.

Hori horrela, eranskin honek 2020ko jardueren plana zehazten du.

Xedapenak

I. ARTIKULUA - Hitzarmen eranskinaren helburua

Eranskin honen xedea da 2020ko jardueren plan zehatza finkatzea, euskararen sustapenari buruzko 2017-2021 Hitzarmen-markoan, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean adostu lankidetza gauzatzen hasteko.

II. ARTIKULUA- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Euskarabideak eta Euskararen Erakunde Publikoak 2020an elkarlanean garatuko dituzten jarduerak

1. Hezkuntza eta helduen euskalduntzea

1.1. Hezkuntza

a) Ikasleen mugikortasuna eta trukeak

2020rako partaideek adostua:

- ikasleen trukeei buruzko beharrak aztertzea eta dauden dispositiboen diagnostia egitea, gurasoen elkarrekin lotura eginez,

b) Ikasketak euskaraz jarraitu nahi dituzten ikasleentzat EAEko Unibertsitateetako sarbide aukerak eta moduak

2020rako partaideek adostua:

- Iparraldeko ikasleen eskaerak, oztopoak eta zailtasun zehatzak aurkezten dituen txostena bururatzea,
- errealitatearen azterketa egin ondoren, aukera ezberdinak aztertzea Iparraldeko ikasleentzat selektibitate handia daukaten sailetan sarbidea errazteko.

c) Euskara irakasle izateko lehiaketa berezira hautagaien kopurua handitzeko helburua daukaten mugaz gaindiko dispositiboak

2020rako partaideek adostua:

- Euroeskualdearekin eta Euroeskualdeko Unibertsitateekin elkarlanean diploma edo titulu binazionalak sortzeko aukerak aztertzea.

1.2. Helduen euskalduntzea

Batzorde teknikoak aktibatuko da helduen euskalduntzeari dagozkion gaiak lantzeko.

2020

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Izenpea
Nafarroako Foru
Komunitateko
Gobernua

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

a) Helduei euskara irakasteko curriculuma eta honi dagokion materiala

2020rako partaideek adostua:

- Eusko Jaurlaritzak garatu Helduen Euskalduntzearen oinarriko Curriculuma Nafarroari egokitzeko bidea aztertzea,
- mailak lortzeko behar diren eskola-orduak zehaztea eta adostea, bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz.

b) Irakasleen berariazko prestakuntza

2020rako partaideek adostua:

- Hiru aldeek helduen euskalduntzean ari diren profesionaleri aukera ematea helduentzako euskararen irakaskuntzan erakunde bakoitzak antolaturiko prestakuntza ekintzetan parte hartzeko,
- diagnostia egitea alde bakoitzak dituen premiak aztertzeko, eragileekin lotura eginez.

c) Helduen euskalduntzea egituratzeko urratsak

2020rako partaideek adostua:

- dauden laguntza-dispositiboen diagnostia egitea, EAEn egiten ari diren ikerketak baliatuz,
- ikasleen ikasketa prozesuaren jarraipena egiteko tresnak lantzea,
- irakaste prozesuen kalitatea zaintzeko dispositibo bat lantzea.

d) HABE liburutegiko zerbitzuak eskaintzea

2020rako partaideek adostua:

- HABE Liburutegia, Euskararen Erakunde Publikoan zein Euskarabidean diharduten teknikarien dokumentu-hornitzaile izatea (liburu, artikulua edo beste, paperean zein digitalean). Zentzu horretan, teknikariek dituzten dokumentazio-beharrei erantzungo die HABE Liburutegiak dokumentu horiek teknikariei helaraziz.
- HABE Liburutegiak, teknikarien aldetik egon daitezkeen gaikako kontsulta espezifikoerik bibliografia zehatza eskainiz erantzutea,
- aipatu teknikariei, Alertak izeneko zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea.

1.3. Hizkuntza gaitasunen egiaztapena

2020

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Izenpea
Nafarroako Foru
Komunitateko
Gobernua

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

a) Ziurtagirien definizioa eta baliokidetzak

2020rako partaideek adostua:

- Iparralderako, Eusko Jaurlaritzako Baliokidetzak batzordearekin B1 mailako agiriaren baliokidetzak gauzatzeko azken urratsak ematea,
- Nafarroak eta Eusko Jaurlaritzak gaia bere osotasunean aztertzea administrazio bakoitzak dituen ziurtagiriak ezagutzeko, egiaztagintza sistema bateratzea edota baliokidetzak helburutzat hartuz.

2. Euskararen erabilpena sustatzea

2.1. Euskara aisialdian

a) Haur eta gazteei zuzendutako egitasmoak

2020rako 3 partaideek adostua:

- 3 lurraldeetan kirol eta aisialdian dauden ekimenak ezagutzea, aztertzea eta alor horretako berriak trukitzea (egonaldi ezberdinak, Mingaina dantzan proiektua...),
- Lan honen oinarrian, euskarazko mugaz gaindiko egonaldi proiektu esperimental baten antolatzea aztertzea
- dauden mugaz gaindiko ekimenen sustatze eta laguntza eskaerak elkarrekin aztertzea.

2.2 Euskara ingurune digitalean

a) Ingurune digitalaren esparruan dauden euskarazko baliabideen inguruan egiten denaren ezagutza

2020rako partaideek adostua:

- Herri Aginteen Koordinaziorako Batzordearen (aurrerantzean HAKOBA) bitartez sortu den lan-taldea baliatuz, gai honi lotutako informazioa edota diagnosien partekatzea,
- HAKOBAko lan-taldera baita Euskararen Aholku Batzordearen Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Berezira Nafarroako zein Iparraldeko teknikariak gonbidatzea.

b) Interneten euskarak duen presentziaren garapena, bereziki euskarazko wikipediaren egitasmoaren bitartez

2020

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Izenpea
Nafarroako Foru
Komunitateko
Gobernua

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

2020rako partaideek adostua:

- alde bakoitzak Wikilarien Elkartearekin esku artean dituen egitasmo eta asmoen berri ematea elkarri,
- Wikipedian euskarazko edukiak eta erabilera garatzeko proiektu bateratu bat bideratzeko egingarritasuna aztertzea.

2.3 Euskara arlo-sozioekonomikoan

2020rako partaideek adostua:

- hiru eremuetan arlo-sozioekonomikoan euskara sustatzeko dauden praktika eta dispositiboen diagnostikoa bat egitea

3. Euskararen aldeko gogoeta eta sustapena

3.1 Euskararen aldeko sentsibilizazioa eta sustapena

- a) Euskaraldia: 2020rako, 3 partaideak adostu dute Euskararen eremu osoan bultzaturiko "Euskaraldia" egitasmoan parte hartzea, bereziki egitasmoaren Koordinazio Batzordean parte hartuz.
- b) Familia transmisioari buruzko bideoak : 2020rako, 3 partaideak adostu dute 2019an EAEn familia transmisioari buruzko bideo proiektuaren oinarrian, lurralde bakoitzaren errealitateak kontuan hartuz, EEP eta Euskarabideari egindakoaren egokitzapenaren aukeraren ematea, edota bakoitzaren beharren arabera proiektuaren garatzeko aukeren aztertzea.

3.2 Gogoeta gunek

- a) Gogoetarako alde batek sortutako gunetan parte hartzea

2020rako 3 partaideek adostua:

- Euskararen Aholku Batzordean kideak eta ordezkariak izendatzea eta HAKOBAko batzordeetan sarbidea ematea,
- horrez gain, alderdi bakoitzak antolatzen dituen gogoetaldi gune eta ekitaldietan (aholku batzordeak, talde tematikoak...) sarbidea ematea.

4. Ikerketak eta euskararen corpusa

2020

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Izenpea
Nafarroako Foru
Komunitateko
Gobernua

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

4.1 Ikerketa soziolinguistikoak

a) Euskararen Adierazle Sistema (aurrerantzean EAS)

2020rako partaideek adostua:

- hiru partaideek elkarlanean sortutako adierazle sistemaren garapena elkarrekin jarraitzea,
- proiektuaren garapenarekin sistemaren eta adierazleen egokitzapen lanetan aritzea, lurralde bakoitzaren errealitateak hobeki kontuan hartuz.

b) Inkesta soziolinguistikoa

2020rako partaideek adostua:

- 7. inkesta soziolinguistikoaren prestakuntza lanak bideratzea, batez ere, landa-lanen antolaketa, eramate baldintzen adostea eta galdetegiaren prestaketa lanak abiatzea

c) Euskaraldiaren ikerketa

2020rako partaideek adostua:

- 2020ko Euskaraldiaren ikerketaren metodologia eta obratzea elgarrekin lantzea
- Euskaraldiaren ikerketa-emaitzen zabalkundearen plangintza elkarrekin antolatzea

4.2 Hizkuntzaren corpusa

a) Itzultzaile neuronal (EJ/EEP hitzarmenean hobe menturaz?)

2020rako, partaideek adostu dute Euskara/Frantsesa – Frantsesa/Euskara itzultzaile automatiko neuronal garatzea, bereziki itzulpen corpus bat osatuz. Itzultzailea Eusko Jaurlaritzak daukan sistemaren barnean kokatuko da eta Jaurlaritzak berak garatuko du, EEPk aldiz, Euskara/Frantsesa Frantsesa/Euskara corpusa osatuko du eta bere webgunean itzultzailea kontsultatzeko atala sortuko du (garatuak diren hizkuntza bikote guztietan).

b) Terminologia:

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Izenpea
Nafarroako Foru
Komunitateko
Gobernua

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

2020rako partaideek adostua:

- Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzorde-atal Berezian 3 lurraldeetako adituak integratzea (Iparralderako EEPren bidez),
- Eusko Jaurlaritzako terminologia adituekin lankidetzaz egituratzea eta egonkortzea,
- Iparraldeari berezituak zaizkion terminoak sartzea Euskalterm terminologia datu-basean.

5. Lankidetzaz Europako markoan

2020rako, 3 partaideek adostu dute, aukeren arabera, proiektuak aurkezten jarraitzea europar finantzaketetan eta elkarrekin lan egitea POCTEFaren etorkizuneko programa operatiboetan, hizkuntza politika lehentasuneko inbertsio gisa integratzeko.

III. ARTIKULUA- Jarduteko modua

Lankidetzarako Hitzarmen Markoan adostu bezala, jarraipenerako eratu den batzorde mistoak du hitzarmenari dagokion 2020ko Eranskin honen betetze-mailaren jarraipena eginen. Eranskin honen ekintza-programa garatzeko, partaideek, dauden batzordeak erabiliko dituzte, edo batzorde teknikoak eratuko dituzte alde bakoitzak bere ordezkariak izendatu ondoren.

Bestalde, 3ko ituna kari elkarrekin bideratu eta diruztatuko diren proiektuentzat, eskatua da honako prozedura segitzea:

- proiektuaren bideratzeko inizatiba daukan partaideak lehen aurkezpen bat egitea
- alde bakoitzak proiektuaren garatzeko interesa erakustea eta baieztatzea
- baieztapenaren ondotik, proiektuaren aurkezpena, aurrekontu zehatza, obratze egutegia, baita ordaintze eta ebaluaketa modalitateen proposamena elkarrekin lantzea (hitzarmen batean emanez)
- alde bakoitzari bere erabaki gunean proiektua baieztatzeko denbora uztea
- alde bakoitzak proiektua baieztatu ondoren, hitzarmena izenpetzea
- partaidetzan bideratu proiektuen inguruko komunikazioa elkarrekin antolatzea

2020

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Izenpea
Nafarroako Foru
Komunitateko
Gobernua

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

IV. ARTIKULUA- Eranskinaren iraunaldia

Eranskin hau sinatzen denetik 2020ko abenduaren 31 arte egongo da indarrean.

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, hiru alderdiek hitzarmen hau izenpetzen dute euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz, hiru aletan, ondoren aipatutako lekuan eta egunean.

Baionan, 2020ko apirilaren 15ean.

<p>Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikaren Sailaren izenean</p> <p>Bingen Zupiria Gorostidi</p> <p>Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua</p>	<p>Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamenduaren izenean</p> <p>Ana Olló Hualde</p> <p>Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria</p>
<p>Euskararen Erakunde Publikoaren izenean</p> <p>Beñat Arrabit</p> <p>Euskararen Erakunde Publikoaren Lehendakaria</p>	

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Izenpea
Nafarroako Foru
Komunitateko
Gobernua

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa